

IRAKURMENA

1. testua

Egitekoa

Irakurri testua eta galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena, adibidean egin den bezala. 0 galdera adibidea da.

Idatzi **letra** dagokion laukian.

** Erantzun zuzen bakoitzeko puntu 1 lortuko duzu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.*

Opariak

GIZON bat entzun dut kexuka, urteak dira emazteak ez diola oparirik egiten urtebetetzean, hala esan dio telefonoaren bestaldean zuen norbaiti. Eta pentsatu dut badagoela hori baino zerbait larriagoa. Askotan gertatzen da. Bikote baten hasierako urteetan, opari ez materialak izaten dira nagusi, une erromantikoak oparitzen dira: elkarrekin bidaia bat Erromara, luxuzko jatetxe batean afaria, kontzertu berezi baterako sarrerak... Gutxika, opari ez material horiek gorputzen hasten dira, material bihurtzen. Hasieran liburu edo disko bat izaten da (hor oraindik uneak oparitzen dira, beraz ez dira guztiz materialak), gero kolonia bat (materiala, baina aldi berean etereo) ... Hurrengo fasean materialago den zerbait, alkandora bat, kasu. Eta horren ondoren, oparirik gabeko urteak datoz. Bikoteak ez du zure urtebetetzea ahaztuko eta muxu berezi bat emango dizu goizean, baina ez du burua hautsiko opari orijinal baten bila, besteak beste, "denetarik daukazulako".

Beno, ba, kexuka ari zen gizonari esango nioke badagoela bikotearen oparirik gabeko urtebetetzea baino egoera larriagorik. Eta horren ondoren datorren fasea da. Benetan kezkatzeko fasea den honetan, bikoteak opari super-erabilgarri bat egingo dizu: iratzargailu bat, gimnasia egiteko aparatu bat (horrek bai egiten duela min), pijama bat ... Kontuz. Alerta gorria. Fase honetan bazaude, jakin ezazu zure bikotearen unibertso erromantikotik kanpo zaudela jada, eta haren familiaren unibertsoan sartu zarela, bere neba-arrebak, koinatua, aitaginarreba eta seme-alaben maila berean.

Egoera larrian zaude, baina oraindik berreskura dezakezu zure harremanaren erromantizismoa. Presta ezazu, ahalik eta azkarren, opari ahalik eta inmaterial eta sinbolikoena, (margotu iezaiozu marrubizko mermeladaz bihotz bat goizeko ogi xigortuaren gainean). Antzeko zerbait egiten ez baduzu, arrisku handia daukazu egunen batean belarri eta sudurretako ileak mozteko aparatu elektriko horietako bat jasotzeko opari, eta hor bai, ez dagoela atzera bueltarik.

Karmele Jaio, *Deia*, 2012/10/05. Moldatua.

1. testua

Aukeratu galdera bakoitzaren erantzuna:

Adb.: 0- Zein da gizonaren kexaren arrazoiak?

- a. Berarekin hizketan ari denak ez diola oparirik egin urtebetetzean.
- b. Azken urteetan ohikoa izan denez, ez duela oparirik jaso urtebetetze egunean.
- c. Azken urteetan emazteak ez duela urtebetetzea gogoratu.

1.- Nolakoak dira opariak bikote baten lehenengo urteetan?

- a.- Dirutan ordaintzen ez diren horietakoak.
- b.- Maitasunari lotutako mementoak.
- c.- Opariak jasotzen dituenarentzat bakarrik balio dutenak.

2.- Zer esan nahi du egileak bigarren fasean opariak gorputzen direla esaten duenean?

- a.- Momentuak oparitzetik opari materialagoak egitera pasatzen garela.
- b.- Opari erromantikoak egin ordeztu, gorputzari lotutako opariak egiten direla.
- c.- Bikotekideak bestearen itxura gogoan duela opari erromantikoa egitean.

3.- Noiz pizten da alerta gorria?

- a.- Oparien bidez, bikotekidea beste senideen mailan dagoela adierazten denean.
- b.- Senideek bikotekideak baino opari hobeak jasotzen dituztenean.
- c.- Lana ematen duen oparia jasotzen denean.

4.- Nola irteten da alerta gorriko fasetik?

- a.- Ez dago ezer egiterik, egoera atzeraezina da eta.
- b.- Ondo pentsatu ondoren, besteak benetan behar duena oparitzu.
- c.- Gure alde erromantikoa azaleratzen duten keinuen bidez.

5.- Zein fasetan dago telefonoz hitz egiten ari den gizona?

- a.- Bigarrenetan.
- b.- Alerta gorrian.
- c.- Hirugarrenean.

Idatzi erantzunari dagokion letra ondoko laukietan:

0.- B	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-
--------------	-----	-----	-----	-----	-----